

Goierri tarra

338. zenbakia 2008ko apirilak 4

PENDULUA
LAGUN
UR
BILA



Zeure argazki bat
poster bezela?

2 x 1

Fotoetxen egiten ditugu

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
 A. Ramirez Baigorri Dra.*

Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitisa, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Lazkao Txiki hil zela 15 urte



Alaitz Sarasola

Orain 15 urte
gugandik joana,
bazuen pasadizo
ta txiste andana,
barre eginarazten
hartu zuen lana...
baina Lazkao Txiki
ez da iragana:
gaur oraindik bertsoan
heltzen da gugana.

Agur eta ohore
haurrek adi-adi
marrazki bizidunen
karikaturari;
hitzaren jolaskide,
kantuzko emari...
aze altxorra eman
diguna opari,
muxu bat, Joxe Miel,
ta segi kantari.

Doinua: "Anai-arrebak hementxe nator"

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

**Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN**

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Iñaki Murua.

5. Ingurugiro txokoa: Belardien
balioa? (III)

6. Euskara txukuntzen:
Gosea dauket atte!

8. Errezeta: Txokolate trufak.
Aholkua: Logela.

10. Elkarrizketa: Joxe Lekuona eta
Juanxo Etxeberria ur-bilatzaileak.

16. Kirola: Jon Erguin neguko
triatleta.

20. Gazteleku: Maddi Murua
gabiriarra.

24. Garai batean: Lazkao Txiki
hil zela 15 urte

26. Non zer.

29. Iragarki laburrak.

30. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Iñaki Murua

*Gizarte
tranpatia ari
gara eraikitzen.
Bai, egia da,
eraikita dago!
Baina oraindik
ere eraikitakoa
berriro
eraikitzen ari
gara.
Berreraikitzen.*

Tranposo, tranpax, tranpazulo...

Gure gaztaroan txapaketan edo kuriketan ari ginela jolasean tranpa egiten zuenari, izenburuko gaitzizena edo ezizena jartzen genion, pixka baterako. Eta batzuei betirako ere bai.

Nik esango nuke, pertsonak, txiki txikitatik dakarren joera dela. Zeinek ez du negar egin zerbait lortzeko? Edo, korrikan ziholarik erori eta ama begira bazegoen, egundoko negarretan hasi eta hura falta bazen eta inor ez begira, isilik jaiki eta mina eraman ezinda, baina aurrera jarraitu? Gainera, ama inguruan zela hasitako negarra ez zen nolanahi amaitzen. Urratu ttikiena ere, arrantzaka ordu erdiz aritzeko lain izaten zen eta gero "bost xentimoren pupua eta hamar xentimoren trapua" jarritakoan, harro lagunei erakustera. Behatz handian baldin bazen urratua eta trapua, frantsesak autostopean bezala joaten ginen, kopetaren pareraino jasota, ongi ikus zezaten gure lorpena.

Horrelakoetan, beti bazen norbait bihozbera, hunkibera edo bere haurrik ez zuena eta, denen begietara, protagonismoa lortzeaz gain gozokiren bat ere eskuratzen zen.

Koskortzen joan ahala, tranpan ibiltzeko joera duenaren egoera, ordea, arazo larri bihur daiteke. Gaizki ohitu denak, inguruko pazientzia neurtzeko edo gurasoei paga ateratzeko edo ... erabil dezake eta baita gauza serioagoak lortzeko ere. Adibidez, eskolako jardunean aurrera egiteko.

Ni harrituta geratzen naiz eskolan txuletarekin harrapatu eta *suerte txarra, saiatu naiz baina gaizki atera zait* esaten dizun gaztearekin. Zurekiko kezka, irakasle zaren aldetik, edo bere irudiak jasango zuen galera eta etxekoei esatean haien erreakzioa... Batzuei horrek denak bost inporta!

Eta hor hasten da tranparen meritua, ikasi gabe gainditzean; beste batek orduak eta orduak sartu eta gainditu ez eta guk kopiatu eta nota. Helburua aproba-

tzea eta ez ikastea / jakitea. Azterketekin bezala lanekin, kopiatu eta aurrera. Dena itxura egitea da batzuentzat; dena tranpa.

Horrela iristen gara heldutasun teorikora (adinak ez baitu beti heldutasuna esan nahi) eta legea betetzea dugu helburu, ez kasu bakoitzean egin beharko genukeena egitea. Ia denok legelari batek adina dakigu: *zenbat egun ezkontzatigatik? Eta familiako bat gaixo bada? Eta etxe aldaketa?*... Halako lekutan sargardoa eta txistorra doan jarri omen dituztela, komunioa hartzera baino finago ilaran jarri eta txanda iristean: *aizu emaidazu bat eta beste bat koñatantzat eta gizonare hor dao eta*... Askotan jubilatua gainera, txilborra diximulatu ezinik; goseak ebakita baleude bezala, lanean madarikatzen ari diren herritar ezezagunei tranpa egitera.

Haziendari, Udalari, Osakidetzari... ahal den guztiari tranpa egitea helburu: *"Tranpa egiteko ere ailegatu egin behar da"* harro eta tente esanaz.

Eta ez baduzu legez edo aukeraz dagokizuna hartzen, tontoa zara gainera, enpresari opariak egiten ari zatzaizkionna, bestela beste batek jango dizuna, zuk har zenezakeena...

Baina guk zerbait behar dugunean? Besteak geu bezala hasten direnean? Telefonoa hartu, deitu eta elkarriketa erdian behin eten eta berriro deitu eta berriro eten eta... badakigunean konexio bakoitza hainbeste xentimo kostako zai-gula? Edo obrak egiteko lurren prezioa nahi dutena agintzen digutenean, gasa edo trena pasatzeko?

Gizarte tranpatia ari gara eraikitzen. Bai, egia da, eraikita dago! Baina oraindik ere eraikitakoa berriro eraikitzen ari gara. Berreraikitzen. Belaunaldien artean hori da egokien transmititzen duguna: baina bada beste esaldi bat ere: *"Tranpa paratu zuena tranpan erori"*. Eta horixe gertatu zaigulakoan nago, gainera.



kutxa

Belardien balioa? (III)

Belardiaren balioa aztertzerakoan, honek bertako belar ekoizpenerako duen gaitasunari begiratzen zaio. Hau faktore ugariaren baitan dago: ur puntuekiko distantzia, mekanizagarria, malda gutxikoa den, luraren sakonera, leku babesa, egutera den, itxiturekin dagoen, azalera handikoa den, biderik duen, begiratzen da besteak beste.

Bada ordea bestelako baloraziorik, ordaintzen ez dena. Gehiago edo gutxiago jabetuta, belardietaz ondo asko gozatuz, gizarte onura bezala onartzen dena. Onura horiek, jadanik, hasiak dira administrazio desberdinetatik ekonomikoki bideratzen. Hauek diru laguntza modura ematen dira, eta egun, oraindik laguntza kopurua sinbolikoa dela esan daiteke.

Jarraian, hausnarketa modura, ikuspegi anitzetatik baloratu beharko liratekeen zenbait gai:

Paisaia: zer balio du ikusmira zoragarri bat izateak?, bista ederrez gozatzea, bidezidor eta urrutiko herriak, mendi tontorrak, belaze eta basoak elkar barneraturik ikustea?, inguruko gea eta bertan ezartzen diren elementuen ulertzea, ohartzea?

Ingurumena: zer balio du bertan dauden izaki bizidun, ugaztun, hegazti, narrasti, intsektu, eta abarrek?. Zenbat, liken, alga eta belar espezie ez produktiboak? Zer balio du, elementu desberdin hauek elkar lanean lortzen duten ingurumen onura?, belardi sistemak betetzen duen karbono finkapena, nitrogeno atmosferikoaren finkapenak, ur filtro



“EHuk eginiko azterketa batean, Gipuzkoako nekazal landa eta zelaiek eskainitako ingurugiro zerbitzuei 64,1 euro/ha - 74,1 euro/ha urteko balorea eman zitzaaien batez besteko. Honen arabera, Goierriko belardiak 1,13 milioi eta 2,39 milioi euro inguru balioko luketen zerbitzuak eskainiko lituzkete urtero gizarteari, gaur arte dohainik ”

lanak, lurra higaduratik babesteko...zenbat?

Kultura eta aisia: belardiek, hizkuntza, toponimia, luraren erabilera, lantze ohiturak, herri kirolak, e.a. jasotzen dituzte beren baitan. Bizimodu jakin batetik eratortzen den izaera, pentsaera, bizierak, ospakizunak....alegia. Erromeriak, ibilaldiak, ikuskizun, kontzertu, lehiaketak, sega apustu, edo eta besterik gabe eguzkia hartu, udaberriko zizak bildu, txanpiñoi, eta barrengorriak... denak daude, besteak beste, zelaien erabilerarekin lotuak.

Hezkuntza: ekosistemen funtzionamendua azaltzeko, moxorro eta belarrak ezagutzeko, herbarioak, in-sektarioak eta abar luze bat egiteko lagungarri eta maiz jotzen den gune dira.

Lurralde antolaketa: hiria eta landa eremuaren arteko zubi, transizio elementu esanguratsuen dugu. Zo-

nalde urbanoen ingurua, periferia leuntzeko eta hiritarren bizi kalitateari atxikia. “Gipuzkoa hiriak” osatzen duen mosaiko horren nortasun eta ezaugarri.

Turismoa eta marketinga: sortzen edo ahalbidetzen duten paisaiagatik, argazkitarako eta erreklamo gisa erabili ohi dira, goran aipaturiko beste hainbat erabilekin bat aisi eskaintza zabal bat ematen dutelarik. Horren adibide “Gipuzkoa zein berdea” kanpaina genuke.

Ikuspegi zabal honetan garbi dagoena, belardiak, gizakion bizi kalitatean, ingurugiroan eta ekonomian eragin baikorrak dituela, eta azken finean beharrezko ditugula gure garapenean.

Manex Aranburu (Goimenek landutako liburuxkatik. Dagoeneko eskuragarri dago Eskualdeko Nekazal Bulegoan eta konsultagai www.goimen.org helbidean)

JAKIN BEHARREKOAK

AHTri buruzko herri galdeteta martxoan egin zen Ustaritze eta Mugerre (Lapurdi). Hona emaitzak: Ustaritzen partehartzea %59,6 izan zen eta botuen %92% AHTren aurka. Mugerren partaidetza %63,2 izan zen eta aurka %91,7.

Txinako animaliak babesteko agintariak internet bidezko legekanpoko basa animalien salerosketei aurre egiteko neurriak hartu dituzte nazioarteko erakundeekin batera. Internetetik salerosketekin zerikusia duten informazioa.%80 kendu dute.

Naturpolis. Argia astekariak Ingurumen eta Lurralde antolamendu sailaren laguntzarekin eginiko mahai jolasa. 8 urtetik gorako umeentzat ekologia, natura eta ingurumenari buruz kontzientziatzeko.

El Grup Balear d’Ornitologia i Defensa de la Naturalesa (GOB) eta WWF/Adena Balear gobernuko lehendakariari San Boscen egin nahi duten golf zelaia gelditu dezaten eskatu diote. Aurrera jarraituz gero babesturiko orkidea Orchis robusta populazio garrantzitsua desagertuko baita.

LIBURUA

“La transición hacia la sostenibilidad” Roberto Bermejo, Ed. Asociación Los Libros de la Catarata. Iraunkortasunaren printzipioak definitzen ditu eta sektore ezberdinetan nola egokitu daitezkeen zehazten du liburu honek.

Gosea dauket, atte!

Maizpide
euskaltegia

Hamaika aldiz entzungo genuen Goierri horrelakorik, baina maiztasun horrek ez digu ondo dagoela esateko bermerik ematen; izan ere, horrelako sentipenak **izan** edo **egon** aditzen bitartez adierazi behar ditugu.

- ✗ Gosea nuen / neukan (oker).
- ✓ Gose nintzen (zuzen).
- ✓ Goseak nengoen (zuzen).
- ✗ Beldurra duzu / daukazu (oker).
- ✓ Beldur zara (zuzen).
- ✓ Beldurrak zaude (zuzen).
- ✗ Egarria dun / daukan (oker).
- ✓ Egarri baiz (zuzen).
- ✓ Egarriak bago (zuzen).
- ✗ Hotza dugu / daukagu (oker).
- ✓ Hotz gara (zuzen).
- ✓ Hotzak gaude (zuzen).
- ✗ Beroa zuen / zeukan (oker).
- ✓ Bero zen (zuzen).
- ✓ Beroak zegoen (zuzen).

Sentipen horiei, ordea, adjektiboren bat (*bandia, sekulakoa, txarra, gaiztoa...*) erantsiz gero, **ukan** edo **eduki** erabiltzea izango dugu. Ondorengo guztiak zuzenak dira:

- ✓ Gose *bandia* nuen. Ez nuen gose txarra. / Gose-gose nintzen. Oso gose nintzen. Goseak amorratzen nengoen.
- ✓ Sekulako beldurra zenuen. Beldur gaiztoren bat bazenuen. Ez zenuen batere beldurrik. / Beldurrak airean zeunden. Kaka praktetan zeunden. Ez zinen batere beldur.
- ✓ Egarri *bandia* dun. / Egarriak akabatzen bago.
- ✓ Hotz *ikaragarria* dugu. / Hotzak akabatzen gaude.
- ✓ Bero *bandia* du joxek. / Izerdi patsetan dago joxe.

Gorputz-atalen bateko mina adierazteko bi aukera izango ditugu:

- ✓ Buruko mina daukat. / Buruko minez nago.
- ✓ Haginetako mina duk. / Haginetako minez bago.
- ✓ Belauna minduta dauka pellok. / Lepoko minez dago pello.
- ✓ Txorkatila bazita dun, anamai!

Ondorengo hauek ere bereizi beharrekoak dira. Bestela... komeriak!

- ✓ Hotz *da* gizon bori (hotzak dago). / Hotza *da* gizon bori.
- ✓ Bero *naiz*, maritxu! (beroak nago). / Ni oso beroa (gartsua) *naiz*, maritxu!



Hotzak nago, hotzak!
Lontxo, gehiago berotu!
Erakutsi hire indarra, dedio!

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Egun hartan gosea zeukan Manolok.
2. Pirinioetako argazki horretan bero zegoen Kristina. Elastikoa ere erantzi egin zuen.
3. Beldur handia huen egun hartan.
4. Oso hotza omen da mediku berria.
5. Egarriak itotzen nagon, Lurdes!

OHARRA: Lehenengoa, goseak zegoen edo gose zen behar du; bigarrenagoan, beroak zegoen; hirugarrena, laugarrena eta bosgarrena zuzenak dira.



izal

IMAZ eta CONTRERAS

Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049

☎ 943 187 045

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

www.jakintza.net



Heziketa euskalduna eta eleanitza

Europar saritutako proiektuak

Kalitatezko hezkuntza

Emaitza bikainak

Irakasleria iraunkorra eta

konprometitua

Hautzaindegia

Jangela

Garraioa

INFORMAZIO BILERA

apirilaren 2an (asteazkena)

5:00etan Euskaraz eta 6:30ean Gazteleraz

jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g - ORDIZIA

943 16 05 40

ordizia@ikastola.net



SUKALDEAN



Lontxo Ormazabal
Korta jatetxea
Gabiria

Osagaiak:

- 300 gr. txokolate beltza.
- 200 gr. esnedun txokolate.
- 200 gr. esnegain likido.
- Kakao hautsa.

Lehenik esnegaina irakiten jarriko ontzi batean. Irakiten hasi orduko, sutatik aterara. Txokolate puskak azkar-azkar sartuko ditugu hartan, txokolate beltza eta esneduna, eta pausatzen utziko dugu minutu batzuetan, txokolatea urtu arte. Orduan gomazko espatula edo zurezko zali batekin, eragiten hasiko gara, txokolatezko ore leun eta homo-

Txokolate trufak

geneoa lortu arte. Ontzi berean utz dezakegu orearen hozten hozkailuan, ongi estalita, ordu batzuetan, txokolatea gogor dadin. Horren ondoren, trufa zatitxoak egingo ditugu, kafeko goilara batekin. Trufa zatiei forma eman eta kakao hautsetan pasatuko ditugu, kakao garratza bada hobe. Pausatzen utzi eta jateko prest izango ditugu.

Logela

Nire ustez logela izan beharko luke etxeko tokirik pertsonalena eta era berean, lasaitasun gehien izaltzen duen gunea. Gaurko bizitza estu honetan, logelaren distribuzio on batek asko lagunduko gaitu presak hobe jasaten. Hau da, jantzi gela bat badugu edo eta armairu dezente bat jartzeko tokia, gauzak errazten dira. Ildo beretik, argiztapen egoki bat edukitzea ere funtsezkoa da. Horregatik hau dena aurrez kontutan eduki behar da.

Zoruan babesa izateko ohe aurea, armairu aldeko jantzi-gela kolore neu-

troko alfonbra edo tapiz batekin estali dezakegu.

Bestalde joera ere bada komuna logelaren barruan kokatzea, honek ere independentzia ematen baitu eta logelak praktikotasuna irabazten du.

Lasaitasun giroa lortzeko ondo datoz kolore argiak, bai hormetan eta bai altzarietan: lakatu zuriak, altzari zahartuak eta dekapatuak, egur argiak, haitz naturala etab. Atmosfera lasaia izateko ere oso garrantzitsua da argi naturala dugun edo ez kontutan izatea eta leihoak nola estaltzen ditugun ondo aztertzea. Gaur

egun, lihoak eta zetazko oihaletan dira egokienak, bai kolore argitan edo jauskera ona duten oihaletan konbinatuz. Koloreari dagokionez tonu, fusiak, lilak, txuri beltzak, orlegiak tartekatzea ere ondo gelditzen dira. Gai honi dagokionez, aukerak geure gustuen arabera izan behar du. Geure estiloa funtzionalagoa bada oso ongi geratzen dira 'store-enrollableak' deitzen direnak.

Geure logelari kutsu pertsonala emateko, berriz, bi gau-mahai ezberdin jarri genitzake edo pieza berezi bat, kabezal tapizatu bat edo eta horma-paper bere-

AHOLKUA



Nekane Eskisabel
Atari dekorazioa
Lazkao

ziren bat. Estiloak ere nahastu daitezke, beti ere orekari eutsiz.

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

- X Jabekideen komunitatea osatzea
- X Komunitateen kontabilitatea
- X Akten idazketa
- X Aurrekontuen eskaera
- X Aholkularitza legala
- X e.a.

Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

urdaneta
oianguren

URDANETA LH

Intxausti Plaza z/g.
Tlfnoa.: 943 88 27 80
Fax: 943 16 18 16
012279aa@hezkuntza.net

OIANGUREN BHI

Altamira Auzoa z/g.
Tlfnoa.: 943 88 08 62
Fax: 943 16 41 21
012282aa@hezkuntza.net



ORDIZIAKO ESKOLA PUBLIKOA

Aukeratu zeurea guztiona

HAUR HEZKUNTZA
EDUCACIÓN INFANTIL

LEHEN HEZKUNTZA
EDUCACIÓN PRIMARIA

DBH - ESO

BATXILERGOAK
BACHILLERATOS

HEZIKETA ZIKLOAK
CICLOS FORMATIVOS

Artile laranja		9 cent
Artile urdin argia		2 cent
Artile urdin iluna		3 cent
Artile turkesa		10 cent
Artile arrosa		8 cent
Artile horia		4 cent
Artile berde argia		5 cent
Artile berde iluna		6 cent
Artile moratua		7 cent
Artile txuria		20 cent
Artile granatea		5 cent
Artile gorria		6 cent

3 eraikin
1 proiektu

Urdaneta - Oianguren eskola euskalduna, anitza et parte hartzea bultzatzen duena da.

Gure hezkuntza proiektua pertsonen heziketa osoa oinarritzen da, bakoitzaren izaera eta egoera kontua hartuz.

Urdaneta - Oianguren somos una escuela euskaldun, plural y participativa.

Nuestro proyecto educativo se basa en la formación integral de las personas adecuándose a la realidad del alumna



Joxe Lekuona eta Juantxo Etxeberria ur-bilatzaileak



Joxe Lekuona mutiloarrak, 48 urte daramazki ur-bilaketa lanean, aitari jarraituz . Erretiroa hartzeko gogoz dago dagoeneko. Ezkio-Itsasoko Juantxo Etxeberriak ere urte asko daramazki bere zaletasunarekin, mutil koxkorra zela Joxek eta bere aita zenak, bere baserrian ura nola

bilatu zuten ikusita. Pendulua lagun aritzen dira han eta hemen ura bilatzen, baina Joxek, begia omen du tresnarik erabiliena. Zulaketak ere egiten dituzte. Ur-bilatzaileetan maisua dugu Joxe Lekuona eta lezio txikia eman digute ondorengo lerrootan.




ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
 Cuatrovientos Industrialdea, 1
 Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Nolatan hasi zineten ur-bilaketan?

Lekuona: Aita ibiltzen zen lan horretan. Handik hasi nintzen.

Etxeberria: Nik 16 bat urte nituela, Joxe eta bere aita zena, gure baserrian izan ziren. Han ibili ziren ur-bilaketan, eta konturatu nintzen niri ere ematen zidala. Hauek ofizioz ibili dira, ni afizioaz, nik ez dut hortarainoko esperientziarik.

Zein tresna ibili izan duzue ur-bilaketarako?

Lekuona: Penduluarekin ibili izan naiz. Aitak kasi ez zuen pendulurik erabiltzen, kotxearen giltzarekin ibiltzen zen.

Etxeberria: Ni akordatzten naiz, mutil koskorra nintzela gure baserrira joan eta kotxeen giltzarekin bilatu zuela ura. '4L'-a zeukaten orduan. Oraindik gogoan daukat nik egun hura.

Giltzak zer egiten zuen ura bilatutakoan?

Lekuona: Jiratzen hasi. Norberak zein postura hartzen, batzuri eskubira jiraka hasten zaie eta beste batzuri ezkerrera. Bakoitzak bere sistema dauka.

Etxeberria: Gehienek eskubira jiratzen dute. Nik bat ikusi dut ezkerrera jiratzen duela. Ikastaroak egiten ibilita nago ni Elgoibarren. Hiru bat urtetan bai, udan ematen zituzten ikastaroak. Gehienean, eskubirako sentsazioa ateratzen zen. Bati ematen zion ezkerrera.

Ura bilatzeko deitzen dizuetenean, pistaren batekin abiatzen zarete, edo nola hasten da bilaketa?

Etxeberria: Batzutan jakiten da zer bait. Negarrak nondik datozen ikusi, harrien betak zein norabidetan dauden ikusi, nondik nora etor litekeen... Ur korrienteak non dauden bilatu behar da.

Lekuona: Pendulua gelditu edukitzen zaila izaten da eta eragin egiten zaio. Ura bilatzen duenean bueltaka hasten da.

Zenbat ur eta zein sako-



Aitaren jarraitzailea

Joxe, aitarengandik jaso zenuen ogibidea. Aitak nondik ikasi zuen?

Lekuona: Nire jaiotetxean, lehorterik izanez gero, ez zen urik izaten. Ura nahi eta taladro bat prestatu zuen eta zulo bat egin zuen, 30 bat metro-edo. Atera zuen ur pixka bat baina, txarra, metal asko zuen. Handik aurrera hasi zen. Orduan baserrietan, gehienetan kasi, ur falta izaten zen.

Etxeberria: Ni akordatzten naiz, mutil kozkorra nintzela, hura hasi zenean.

neretara dagoen asma-tzen al duzue?

Lekuona: Gehienetan.

Etxeberria: Joxe maisua da horretan.

Sakontasuna zeren arabera neurtzen duzue?

Lekuona: Kontatuta, mugimenduak kontatuta.

Etxeberria: Ni denekin gaizki ibiltzen naiz horretan.

Lekuona: Kontzentrazio handia behar da, eta ez duzu pentsatu behar zenbat ur egongo ote den...

Etxeberria: Askok egongo dela pentsatuz gero, zure intuizioak eragin egiten du eta zure burua engainatzen duzu. Erabat neutral egon behar duzu. Badagoela pentsatuz joaten bazara ere, kontuz, konturatu gabe, zure buruari aterarazi egiten baitiozu.

Ikasi egin beharko da burua zurian edukitzen ere.

Etxeberria: Bai, bai.

Lekuona: Bai, nahastu egiten da bestela.

Etxeberria: Kontzentratzen ikasi behar da, oso garrantzitsua da.

Bestela zer gertatu liteke?

Etxeberria: Ez dagoen leku batean emango dizu, edo distantzia gaizki markatu...

Pendulua bezain garrantzitsua, beraz, burua da.

Lekuona: Bai. Azkenean pertsona den guztia buruak erabiltzen du.

Sentsibiltate berezia behar da, edo ikasi egiten da...

Etxeberria: Denetik behar da. Gorputza nahiko sensibla eduki beharko dela uste dut.

Lekuona: Askotan, egun ona den garaian, mendiari begira jarri eta bertara joan gabe, jakiten da. Gehienetan bai behintzat.

Etxeberria: Joxek bai. Hori gutxi egiten dute.

Makilen batzuk ere erabili izan dira ur-bilaketarako.

Etxeberria: Baita ere. Ohiturak dira. Nik uste dut,

Kontzentratzen ikasi behar da,
oso garrantzitsua da. JOXE LEKUONA.



“Urak gorputzari eragiten dion sentsazioa adierazten du penduluak”

Pendulua erakutsi digu Joxe Lekuonak, zorrotxotik aterata. “Donostian erositakoa da baina denda hura itxi dute”. “Ertaroko azoketan saltzen dituzte baina beste helburu batekin ibiltzen dira, sendatzeko tresna bezala”, gaineratu du Juanxo Etxeberria.

Etxeberria: Penduluak ez dauka ezer. Gorputzari edo eskuari eragiten diozun sentsazioa adierazteko da pendulua. Sentsazio txiki bat nabarmenduz gero, penduluak nabarmentzen du.

Lekuona: Ni dagoeneko ahaztuta nago pendularekin. Eskuarekin bakarrik ibiltzen naiz. Zailxeagoa da baina...

Lekuona: Uraren gainean baldin bazoaz, kontzentratuta joanez gero, eragiten dizun sentsazio txikia adierazteko da pendulua. Gehiago nabarmentzeko.

Ura norberak bilatu behar du beraz, penduluak ez.

Etxeberria: Hori da.

ohituz gero, batekin edo bestearekin ibili, antzekoa izango dela.

Lekuona: Ni ibiltzen nintzen, baina niretzat arriskutsua zen. Sakontasuna hartzeko ez zitzaidan sekula gustatu. Oso onak eduki nituen nik, itsasoko balearen bigoteak omen ziren. Galdu egin nituen.

Nola lortu zenituen balearen bigote horiek?

Lekuona: Nire aita zenari eman zizkien. Patricioren seme zaharrenak, ez dakit nondik ekarrita, harek eman zizkion.

Etxeberria: Haiek hobeak al ziren?

Lekuona: Puskatzen zailak ziren, ematen ez zutenak, beti berdin egoten zirenak.

Makilak berriez, zerezkoak izaten ziren?

Lekuona: Hurritza gehiena.

Etxeberria: Metalezko hagatxoak edo barillak ere ibiltzen dituzte.

Lekuona: Metro zintarekin ikusi nuen aurrekoan bat.

Elkarri zein sistema erabiltzen duzuen esaten al diezu?

Etxeberria: Batarenak bestearentzako ez du balio.

Lekuona: Bakoitzak bere ohiturak hartzen ditu.

Etxeberria: Zeure ohiturak hartzen dituzu, eta zeure kontzentrazioak hartzen dituzu, eta zeuk ikasi behar duzu egiten. Ez dago besterik. Baten sistemak bestearentzako igual ez du balio.

Lekuona: Nik aitak egiten zuen sistema ez nuen hartu.

Zein sistema zen?

Lekuona: Sistema berdintsua zen, baina altuera eta sakontasuna hartzeko beste sistema bat erabiltzen zuen.

Etxeberria: Ormaiztegiko Tanborrero zenak, kobrezko txanponak eskura bota, lurrera botaz bota joan eta hala egiten zuen.

Lekuona: Batzuk poltsiko-ko txanponak, erlojuak... denak kentzen dituzte... Batere balio ez dutenak.

Etxeberria: Gu Elgoibarren ikastaroetan ibili ginenean, arropak zer ikusia izan zezakeela esan ziguten. Sintetikoek, elektrizitate estatiko asko akumulatzen zutela eta horiek nahastu zezaketela. Joxe ez du ezerk ere nahasten. Txanponak poltsikoan edukiaztatik ere berdin.

Joxeren begiak beraz, garrantzitsuak dira.

Lekuona: Bat izurratuta daukat baino.

Etxeberria: Baina ondo neurtzen du bestearekin.

Inguruan ibili al zarete ur-bilaketetan, edo kanpoan ere ibili zarete.

Lekuona: Ni Euskal Herri- tik ez naiz atera.

Etxeberria: Bai, hemen bakarrik.

Ur-bilaketak zertarako egiten dira?

Lekuona: Etxeak egiteko garaian, lurra saneatzen nahikoa lan izaten da... Partikularrek deitzen digute gehien. Lan bereziren bat ez bada, udaletxeetatik orain ez digute deitzen, Ur Zerbitzuak jarrita dauka eta pantanoetatik etxeetaraino ura. Edateko iturriak bilatzeko, oso aparte dauden baserrietara, eramateko lan zaila daukatenean, orduan deitzen digute. Lan zaila- rako bakarrik.

Leku zailik ba al dago?

Lekuona: Oso aparte dauden baserrietan, mendian bastante goian egoten dira eta mendian goian ur asko izatea nahiko zaila izaten da. Zuloak ere luzeak egin behar. Ura ateratzen samurra den tokietan udaletxeek jarrita egoten da, eta guretzat lan samurra falta.

Etxeberria: Orain geldi-

tzen direnak, zailenak dira. **Zulaketak ere zeuok egiten al dituzue?**

Lekuona: Geuk egiten ditugu bai. 400 metroko zuloak egiten ditugu.

Sakontasuna neurtzea izaten al da zailena?

Etxeberria: Niretzako bai. Joxek esaten badizu hain- besterainoko bitartean dago, hor ibiliko da. Eta etxe- tik edo bertara joan gabe esaten badizu ere bai.

Gertatu al zaizue inoiz, ura dagoela uste izan eta zulatutakoan batere urik ez aurkitzea?

Lekuona: Ez egotea ez da gertatu izan baina askotan sakontasunarekin enredo- ren bat eduki eta zuloa be- herago berriro egin behar b ai. Ni ez naiz beti zehatz-ze- hatz ibiltzen.

Makinariak ez al dago ura bilatzen duenik?

Lekuona: Nik dakidanik oraindik ez. Sistemaren bat badabil, baina gu txarrak eta hura txarragoa. Gainera sakontasun handia ere ez du harrapatzen.

Etxeberria: Nik behin topo egin nuen tipo batekin, Mindegia aizkolariaren etxean. Ganadu asko dauka eta pabilioi handi bat dauka. Itxiak izaten dira, ez dute leihorik izaten. Pent- suarekin noraino beteta da- goen ikusteko detektore bat- zuk daude. Horrelako tek- niko bat etorri zen eta ni ikusi ninduen. Penduluare- kin bilatzen nuela esan nion. "Aitaren, semearen eta espiritu santuaren izene- an amen", esan zuen. "Oraindik hola, horrekin nora zoaz, Jesukristoren ga- raiko sistemak dira". Hala esan nion, ura bilatzen

Etxe azpiko urak

Etxe azpian ur-korronteren bat egotea osasunaren- tzat kaltegarria dela esaten da...

Lekuona: Jende asko dabil gauza horrekin.

Etxeberria: Geroz eta gehiago. Ikastaroetan horri ikara- garrizko inportantzia ematen zioten.

Lekuona: Faileri ere bai. Ur-bilatzaileentzako lanik gehie- na horixe.

Etxeberria: Hartman lineak ere egoten dira. Eta horiek bilatzen lan egiten du jendeak.

Horretaz sinisten al duzue?

Lekuona: Nik ur-bilatzaile horiek ikusita, batere ez. Ur- bilatzailea bazara, lehenengo aurkitu eta gero konproba- tu egin behar duzu eta ur-bilatzaile hauek ez dute kon- probatzen.

Etxeberria: Gurea demostratzea izan da beti. Nik Zuma- rragan badut sondeo bat egina baserri baten azpira. Hart- man horien berri jakin zuenean, galdetu egin zidan. Bere aurrekoak oso gazterik hil omen ziren eta horregatik ote zen jakin nahi zuen. Sukalde pare-parean beta bat pasa- tzen zen, berealdiko putzua zegoen. Kezka hori bazuen. Ur-korrontea kendu nion.

Lekuona: Nik uraren gainean lo egiten dut. Jendea etor- tzen zait hori galdezka baina nik etxea lasai egiteko esa- ten diet.

Txarrena omen da, horrelako ur-korronte bat eduki eta etxeko tuberiarekin gurutzatzea.

Baina horiek denak, justifikatu gabeko kontuak dira.

Etxeberria: Jendea hasi da bai, etxea egin nahi duena etorri eta lekurik egokiena zein ote den galdetzen.

duen makinaren bat ekar- tzeko. "Egongo ez da ba! Detektoreak denerako dau- de eta". Izena eta zuzenbi- dea apuntatzeko esan nion eta bilatzen bazuen bidal- tzeko, berdin zela zenbat balio zuen. Oraindik ez du bidali. Parre egin zidan hark niri, baina oraindik ez dit ezer bidali.

Zenbat urterekin aurkitu zenuten aurrenekoz ura?

Lekuona: Ni zulaketan, 16 urterekin hasi nintzen. Ha- sieran, hemen ere, nobata- da izaten da. Beti-beti ere ez nintzen oso fin ibiltzen.

Buztin hezeak ere eman egiten du eta hasiberrian nik uste hura errazago bila- tzen zela. Ikasi egiten da hori baztertzen.

Etxeberria: Lur azpiko urak bakarrik bilatu behar dituzula joan behar zara kontzentratuta. Joxek esan duena, lur azpian badaude beta batzuk, buztinarekin,

eta hori normalean bustia egoten da. Bustitasun ho- rrek eman egiten du, ura balego bezala. Horrekin, aditua ez denari, engainu handia sortzen zaio.

Lekuona: Jendea ur-bilake- tan hasten den garaian, je- neralean, denak erortzen dira. Buztina bezala, zuloak ere egoten dira tarteka, eta ur pixka bat geldituta bal- din badago, horrek ere eman egiten du.

Gehiena kostatu zaizuen lekuren bat izango du- zue. Han, hemen, gorago, behe- rago zulatu eta ezin bilatu...

Lekuona: Bai, horrelakoak ere tokatu dira. Baina ara- zorik handiena ematen due- na, zundaketak edo sonde- oak egitea da. Zenbait toki- tan egin ezin. Oso harri txar- ra tokatuz gero, eta nahi duzun lekuraino iritsi ezin bazara, beste intento bat eta beste bat, egin behar.

Oso aparte dauden baserriak mendian bastante goian egoten dira eta mendian goian ur asko izatea nahiko zaila izaten da.

Ettxeberria: Ura non dagoen bilatzea eta ur hori kanpora ateratzea beste arazo bat da. Sondeo horizontzala egiten baduzu eta bitartean beste zulgune bat bilatzen baduzu, handik ihes egiten du urak eta nahiko problematikoa izaten da askotan ere.

Lekuona: Lan handia ematen du horrek bai. Horregatik inork ere ez du sondeo horizontalik egin nahi.

Ettxeberria: Oso jende gutxi egiten ditu sondeo horizontalak. Goitik behera bai, altuerarekin ere ez daukazu hainbeste problema ibili beharrik. Huts egiten baduzu ere, sartu beherago. Ura 10 metrora dagoela kalkulatu baduzu eta 20ra baldin badago, segi zultzen, harrapatu arte. Zulguneak baldin badaude, behera bonba sartu eta atera daiteke. Zeharretara egiten baldin baduzu, kalkulatu behar duzu putzu hori zein alturatan dagoen; gorago edo beherago zultzen baduzu, ez baita aterako.

Lekuona: Sondeo egiteko ere, zeharretara zailagoa da.

Hori ere ikasi egin behar du da.

Lekuona: Ez da sekula ikasten. Aurtengo udan 48 urte egin behar ditut lan horretan eta oraindik ez dut ikasi.

400 metroko zuloak egiten ditugu. Horrelako lana daukadanean, bezperatik lo egiteko gogoia ere kendu egiten da. Ez daukazu konfidantzarik egingo duzun ala ez duzun.

Urarekin ametsik egiten al duzue?

Lekuona: Logurea kendu bai. Ura baino txarragoa, zulaketa izaten da.



Aralarren 2003ko lehortearen ondoren

Urte asko daramazki ur-bilatzaile lanean Joxe Lekuonak. Horixe du ogibide. Bere lanaren adibidetzat, 2003. urteko udako lehortearen ondorioz egindako lanak jarri ditu: "Aralarren badauzkat bi sondeo egiteko. Aralarren lana zaila da: bidea luzea, kamioiarentzat lekua ere hala moduzkoa. Karehaitza da eta pitzatu asko dauka. Ura behera joaten da. Ura bilatzeko asko zultatu behar da. Saioa ederra eginda gaude. Urriaren leian igo eta otsailaren erdian jaitsi. Negu guztia. Askotan elurrarekin eta ezin joan. Orain nahiko urekin dabiltzala uste dut Aralar alde horretan. Ondo asmatu genuen itxura denez. Urbian lan egitea alde ederrekoa da, pista dago han eta. Han ere egin genuen saio bat, orain dela 2 urte", adierazi du mutiloarrak.

Makina bereziak behar dira. Asko aldatu al dira?

Lekuona: Aldatu dira baina zeharretara zultzeko ez dago aldaketa handirik, ez da ibiltzen eta.

Hasi zinetenean, "honek zera bilatuko dik" zenbat aldiz entzun duzue?

Ettxeberria: Oraindik ere bai.

Baina jendea ixilaraziko zenuten.

Lekuona: Bai. Askok ikusi dituzte emaitzak eta jendeak sinisten du. Ur-bilatzaile batzuk egoten dira... baina haiei demostratuz gero, kitto.

Ettxeberria: Nik badakit, geologo bat, hasita dagoela penduluarekin ur bila.

Lekuona: Gehienak kontrarioak izaten dira. Nik, horrelakoetan, ez daukat kontrarioik hemen. Eurekin lan egin dut eta haiei demostratuz gero, ikusten dute.

Ura bilatzen duzuenen, zer sentitzen duzue?

Lekuona: Urarekin asko ibiliz gero, niri besoa, indarrik gabe gelditzen zait. Bolada bat izan nuen egundoko burukomina jartzen zitzaidana. Ibili ere asko egiten nintzen, egun osoan igual. Orain, penduloarekin

ahalik eta gutxiena ibiltzen naiz.

Begia duzu lan tresna orduan.

Lekuona: Bai, eta nahiko zuzen.

Ettxeberria: Bai, bai. Hori xe zuzen! Etiket esanda, asmatu egiten du, oso justuan gainera.

Ur-bilatzaileen artean lagundu egiten zarete, ala kompetentzia handia dago?

Ettxeberria: Gu biok lagundu egiten gara.

Lekuona: Baina jeneralean ez eh! Nahiko berekoia izango gara.

Tel 943 88 44 00 Faxa 943 80 51 27 www.biokzerbitzuak.com Ordizia Goierri, 12	 biok z e r b i t z u a k	kudeaketa fiskala kontablea merkatala laborala
--	---	---



GoierriTarra

943 16 00 56 goierritarra@goierrikohitza.info



Andramendi. Urbialde 2 - Beasain - Tel./Faxa: 943 88 96 17 - Haurtzaindegia: 685 73 36 88 / 665 73 97 50

E-posta: beasain@ikastola.net - www.beasaingoikastola.com



Haurtzaindegia (0-3), ludoteka eta jangela.

Urte guztian zabalik (abuztuan salbu).
Hezkuntza proiektuan txertatutako
proiektua. CAF-eko langileentzat
%20ko beherapena. Eusko Jaurlaritzak
familientzako bideratzen dituen
laguntzetako bitartekari.



Mundua irakurtzen, interpretatzen eta sortzen

erakusteko, euskaltzale eta eleanitz
izango diren ikasleak. Ingelesa 4
urtetik aurrera. Lehen Hezkuntza 4.
mailatik aurrera frantsesa.



Izateko sortu eta sortzeko izan.

Irakurketa-idazketa, matematika
eta oro har edukietan trebatzeaz gain
harremanetan eta sormenean eragiten
duen irakaskuntza. Egoten eta egiten
ikasteko.



Matrikula-kanpainako aurkezpen datak:

Apirilaren 1ean, 17:30ean euskaraz;
18:30ean erdaraz.

Apirilaren 8an, zalantzak argitzeko bilera.
17:30ean euskaraz; 18:30ean erdaraz.

Beste egun batean nahi izanez gero,
aldez aurretik deitu.

Jon Erguin neguko triatleta

K irola beti egin izan badu ere, bi urte dira kirolari serioxeago heldu eta neguko triatloietan eta mendiko duatloietan parte hartzen hasi zela. Eraitza onekin gainera: aurten, Espainiako txapelketan bigarren izan da eta Munduko txapelketarako txartela eskuratuta, 20. egin du Alemanian. 27 urte ditu beasaindarrak.



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN


aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnada 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

10



Aurtengo denboraldia bukatzeaz dela harrapatu dugu 27 urteko beasaindarra. Ingeniaria da, eta Arrasateko Fagorren lana egiten du. Entrenatzeko denbora handirik ez du, goizeko 6,30ak aldera etxetik atera eta 6,30ak aldera itzultzen baita.

Baina joan zen urteko irailaz geroztik, iluntzeak, kirolari eskaini dizkio.

atsedenaren garaia iritsi zaio beasaindarri.

Neguko kirolaria

Neguko kirolaria da, elurretakoa, mendikoa. Elurra eta mendia ditu gustukoak.

“Kirola beti gustatu izan zait. Lagunarteko futbito txapelketan iaz arte ibili naiz, surf egitea gustatzen zait, iraupen eskian ere ondo ibiltzen nintzen. Txikita-

behar da. Asteazken zehar, txirrinduan edo korrika ibiltzen nintzen eta ondo. Eskiatzen ondo ibiltzen nintzenez, triatloiari begira gehiago zentratzea erabaki nuen. Karrera dezente egin ditut mendiko bizikletan... batez ere dominatzen ez dutudan sektoreetan gehiago entrenatu dut. Duetloiak egin ditut, Ziklo kros batzuk...”.

utzi egin dut, asteburu batzuetan zerbait gehiago saiatu... Iraupen eskiko lasterketa bakarrik izango bultz, ezberdina litzateke, explosiboagoa da, teknika gehiago behar da. Triatloian denetik pixka bat denez, konstantea izan behar duzunez hiru kirolekin... ondo moldatzen naiz”, aitortu du beasaindarra. Kirol egokia aurkitu du beraz.



“Konstante entrenatzen dut. Orain dela bi urte hasi nintzen fundamentuz entrenatzen, entrenamenduak jarraitu, eta egunero-egunero ordu bete edo ordu eta erdi entrenatzen dut”. Orain

tik ibili izan naiz iraupen eskian. Karreratan asko ibilitakoa naiz. Ondo ibili izan naiz beti. Beraz, eskian, gutxieneko bat entrenatuta nahikoa nuen. Baina horretarako elurraren bila joan

Era horretan, “iraupen eskian punta-puntan ibiltzeko asko entrenatu beharra daukazu. Hori hemen zaila da. Neguko triatloiari begira, eskiatzen nahiko ondo ibiltzen naizenez, pixka bat

Emaizta onak

Eta oso ondo joan zaio. Emaizta onak lortu ditu beasaindarra. Formigalen jokutako Espainiako txapelketan bigarren postua egin zuen podiumean. Horrekin



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Entrenamenduak

Lazkaoko Kemen zentroko Etor Mendiak egiten dio entrenamenduen plangintza. “Ikasi egiten da. Dabiltzan batzuk, txirrindulariak izandakoak dira eta bazekiten nola entrenatu. Baina ni nere kasa ibili izan naiz orain arte. Futbitoko partidua entrenamendu bezala hartzen nuen”. Ziklo krosean probaren batzuk egin zituen. “Ondo pasatzen dut. Eta entrenamendu bezala hartzen dut”, aitortu du.

Goierriko Triatloi Taldeko kidea da. Bakarra da neguko triatloietan ibiltzen dena. “Beno, aurtén beste lagun bat izan du, Etor Mendia. Mendiko duatloietan beste bi ere hasi dira”, zehaztu du beasaindarrak.



Ziklo krosean probaren batzuk egin zituen entrenamendu bezala. Argazkian, Ormaiztegiako ziklo krosa bukatu ondoren.

Txikitatik ibili izan naiz iraupen eskian. Karreretan asko ibilitakoa naiz. Ondo ibili izan naiz beti. Beraz, triatloiarri helduta, eskian, gutxieneko bat entrenatuta nahikoa nuen.

gogorretan, gora-beherekin, hobeto moldatzen da. Indarra behar den zirkuitua gus-tatzen zaio”. Monotoniarik ez zait gustatzen.

Uda lasaia go hartu eta irailan berriz helduko die entrenamenduei. “Aurtén progresio handia egin dut eta behin maila honetara iritsita, jarraitu egingo dut seguru-erik”.

Adinari dagokionean gainera, adin onean dagoela uste du. “Adin ona da, aurretik prestatuta izanez gero. Pixkanaka landuta, hobeto ibiltzen da. Ni azken batean, hasi berria naiz, serio, beranduegi hasi naiz. Aurrean dabiltzan gehienak, 30-35 urte bitartekoak dira. Espainiako txapeldunak, 28 urte ditu”.

Neguko triatloietan Ironman bezalako proba lu-zeak izaten diren galdetu diogu. “Frantzian badago, Ironmanaren distantzien antzekoa dituen karrera bat. Baina ez nau tentatzen. Egi-teagatik egin bai baina ho-rietariko bat prestatzeko or-du asko sartu behar dira. Eta nik ez daukat denbora-rik”, aitortu du.

batera, Alemaniako Oihan Beltzean jokatu-ko zen Munduko txapelketarako xarte-la ere eskuratu zuen.

“Espainiako txapelketan bigarren egin nuen. Asmoa aurrean ibiltzea zen, baina hain ondo ibiltzea ez nuen espero. Gehienez hirugarren egitea pentsatzen nuen. Poz handia izan zen, ordura arte egindako lan guztiak zerbaite-ko balio izan zuelako”. Iazko urtean, adibidez, elur faltagatik, ez zen Espainiako txapelketa-rik jokatu.

10 kilometro eskiatzen, 10 kilometro mendiko bizi-kletan eta 5 kilometro korri-ka izaten dira neguko tria-tloien neurriak. “Helburua, dena elurretan egitea izaten da. Adibidez, Munduko txapelketan ez zegoen elurrik. Alemanian, Oihan Beltzean. Larunbatean zen karrera eta ostegunean, obratako ka-mioiarekin elurra ekarri eta ekarri aritu ziren. Hiru kilo-metroko ibilbide bat marka-tu zuten. Korrikan eta bizi-

kletan, asfalto gainean egin genuen. Pena eman zidan, behin kanpora joango las-terketa batean parte hartze-ria eta elurrik ez izatea”.

Munduko txapelketako esperientzi-az galdetu diogu. “Karrera txarra egin nuen. Ez dakit zer izan zen: pre-sioa, azkeneko hilabetean ez nuen karrerarik lehiatu... ez dakit arrazoia zein den baina korrikan hasi eta ezin. Gaizki egin nuen, denbora dezente galdu nuen. Bizi-kletako proba, oso laua izan zen. Errekuperatzeko zail samarra zen. Eskiatzen, hobeto, pixka bat errekupe-ratu nuen. Gustura, nire neurrian. 20. egin nuen”.

Europako mailari dago-kionean, maila handia da-goela dio. “Tradizio gehi-ago dago. Lehenengo hamar-arte-ean, maila handia dago. Korrika ondo egin izan ba-nu, 15. egingo nuen. Hortik gora ez. Batzuk profesio-na-lak dira; beste batzuk Nor-vegiako eski selekzioan ibil-tzen direnak... Beno, baina

nire neurrikoak ere bazeu-den”.

Gozamena

Mendiko bizikletan eta ko-rrikan ere, elurraren gaine-an egiten da. “Gozamena da, bizikletan elurretan ibil-tzea”, adierazi du Erguinek. “Mendiko bizikletak kubier-ta normalak, pixka bat hus-tuta, takodun kubiartak, pixka bat zabalxeagoak... Zapatilak, iltzezkoak, kro-se-tan ibiltzen direnak”.

Hiru kiroletan, eskian du esperentziarik handiena eta korrika egitea gustatzen zaio gutxien.

Mendiko bizikletari gus-tua hartu dio eta mendiko duatloiak ere egiten ditu beasaindarrak. Martxoaren 15eko asteburuan adibidez, bi duatloi egin zituen. Maia-tza aldera ere badu lasterke-taren bat egiteko gogoia.

Duatloiko probetan, 6 kilometro egiten dituzte ko-rrika, eta 20 kilometro men-diko bizikletan. “Oso poli-tak dira. Zenbat eta zirkuitu



“Surfa asko gustatzen zait, Txindoki snowboardarekin jaistea ere bai”

Kirol bat:

Surfa asko gustatzen zait. Futbito asko gustatzen zait. Mendira joatea... denetik. Txindoki snowboardarekin jaistea asko gustatzen zait.

Korrika, eskia eta txirrindua. Aukeratu behar izanez gero zein aukeratu zenuke?

Korrika gustatzen zait gutxi. Eskian oso gustura ibili izan naiz beti eta bizikletan ere gustura nabil. Biekina.

Triatlloietan kirol batetik bestera, arropak aldatzen al dituzue?

Oinetakoak bakarrik aldatzen ditugu. Eta garrantzitsua da, denbora asko galduz gero besteek aurrera eginen dute eta.

Kirolaz gain, beste zaleztasunik ba al daukazu?

Bidaia, lagunekin egotea... Telebistaren aurrean denbora gutxi pasatzen dut. Sofan, geldirik, gutxitan egoten naiz, nahiz eta egoten naizenean gustura egoten naizen.

Lasterketa bat hasi aurretik...

Orduerdi bat lehenago, platanoa jaten dut.

Eta bukatu ondoren...

Ondo eginez gero gustura, bestela, hurrengo lasterketan pentsatzen hasten naiz.

Elikadura zaintzea garrantzitsua al da?

Dietarik ez dut jarraitzen. Fagorren bazkaltzen dut, eta ematen didatena jaten dut. Saiatzen naiz hobeto xeago jaten. Baina ez daukat arazorik palmera bat edo hamburgesa bat jateko. Ez naiz profesionala, nirea hobby bat da.

Janari bat:

Urdaiazpikoa asko gustatzen zait.

Edari bat:

Sagardoa.

Ametsetako bidaia bat?

Bi egingo nituzke: bat, elurretara, Norvegia edo Alpe aldera; eta eguraldi eta olatu onaren bila, Hawai-
ra.

Amets bat:

Horrelaxe jarraitzea, ondo bizitzen.

Kirola zer da zuretzat?

Hobby bat da. Beti gustatu izan zait denetik probatzea.

NEURE BURUA NIK NEUK GIDATZEKO PREST!

WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

2008
berrikuntza urtea
euskadi
año de la innovación

Maddi Murua gabiriarra

“Askoz ere gehiago gozatzan dut poesia idatziz”

Etxean ikusi eta ikasitakoa ondo baino hobeto egiten du Maddi Murua gabiriarrak. 17 urte ditu eta irakurzaletasunetik idaz zaletasuna datorkio eta literatur lehiaketa ezberdinetan sari ugari lortu ditu gabiriarrak. Aurtengo Beasain idazlehiaketan adibidez, poesian eta prosan, sari bana lortu du. Orain, Urruzuno lehiaketa irabaztea du helburu, poesia atalean.



ainararetxeberria

HANKARA
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

etxekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

Aurten bi sari irabazi dituzu Beasaingo Literatur Lehiaketan; bat poesian eta bestea prosan; biak ezberdinak. Nola lantzen dituzu? Bietako zeinetan sentitzen zara gusturago?

Bai. Poesian lehenengo saria irabazi dut eta prosan hirugarrena, bi arloetan irabazi dut saria. Egia esan, nire adinekoe gehienek poesia lantzea prosan idaztea baino zailagoa dela dioten arren, nik gogokoago dut poesia idaztea; askoz ere gehiago gozatzen dut poesia idatziz.

Lantzeari dagokionez, ez dago sekretu handirik. Irakurtzeko zaletasuna izatea da kontua eta zerbait irakurri ondoren edo abestiren bat entzun ondoren horrek gogoeta egitera bultzatzen nau eta une horretan sentitzen ari naizena orritxo batean idaztera.

Beti idatzi izan al duzu?

Bai, betidanik izan dut gogoko idaztea eta irakurtzea. Eta, seguru aski, etxean eta eskolan horretara askotan bultzatu nautelako izango da. Txiki-txikitatik izan dut ohera sartu eta lo hartu aurretik irakurtzeko ohitura, eta gauero irakurtzen dut zer edo zer. Idazteko zaletasuna, ordea, geroago sortu zitzaidan. Betidanik ikusi ditut etxekoak irakurtzen eta baita idazten ere eta eskolako irakasleek ere asko animatu naute idaztera, eta horrek giro egokia sortzen du zaletasun hori garatzeko. Badakizu: zer ikusi, hura ikasi.

Noiz idazten duzu?


Ilunabarrean gehienbat, eta inoiz nahiko gautu ondoren ere bai; egun batzuetan, batez ere, azterketa garaian,

“Egunsentia Parisen

*Lurraren ibintza besarkatuz
esnatu dut egunsentia.
Ibili ditut kaleak,
urratu espaloi bezeak,
zebarkatu abenida zabal-luzeak,
miatu ezker-eskuineko
denda, etxe eta iragarkiak.*

Ezer apartekorik ez Parisen....”

Maddi Murua Sarriegi



*“Poesia batez ere abestietako letren bidez
neureganatzen dut, eta borretan Xabier Leteren edota
Imanolen abestien letrak oso gogoko ditut, eta zer
esanik ez gaztelaniaz kantatzen duten hainbatenak.*

oso nekatuta sartzen zara ohera eta horietan zail da ezer idazten hastea, baina beste batzuetan loa uxatzeko gai zara, ondo sentitzen zara eta horietan pozik aritzen naiz, musika lagun dudala, zerbait idazten.

Irakurtzeko zer gustatzen zaizu?

Irakurtzeko orduan poesia nahiz prosa, biak ditut gogoko. Dena den, errazagoa egiten zaidala uste dut prosa irakurtzea eta beraz, joera handiagoa dut ipuinak eta nobelak irakurtzeko poesia baino. Poesia batez ere abestietako letren bidez neureganatzen dut, eta horretan Xabier Leteren edota Imanolen abestien letrak oso gogoko ditut, eta zer esanik ez gaztelaniaz kantatzen duten hainbatenak.

Orain dela gutxi Juan Kruz Igerabide idazlearen ‘Hauts bihurtu zineten’ liburu irakurri dut eta ikaragarri gustatu zait. Gaztelaniaz irakurtzea ere gustatzen zait eta gaur egun aukera zabalagoa dago bi hizkuntza horietako edozeinetan irakasleek edota lagunek gomendatuko ipuin edo nobelak aukeratu eta irakurtzeko.

Zein gai motari buruz idazten duzu?

Ez da erraza galdera horri erantzun zehatza ematea, baina bizi naizen lekuan bizi naizelako edota ez dakit beste zein arrazoiengatik izango den, baina naturarekin zerikusia duten gaiak gogoko ditut, urtaroak esate baterako eta, bestalde, bizitzaren eta heriotzaren arteko lehia edo ibilbide horretan askotan murgiltzen naiz. Egutetik egunera argiago ikusten dut zailena hastea dela, behin hasiz gero, den-

PSIKOLOGI KLINIKOA

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkartokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

Arriak parrilan
 © 943 65 21 76
ABALTZISKETA

ZALBIDE
**TOLARE
SAGARDOTEGIA**



“Ilunabarra da irakurtzeko momenturik egokiena”

Liburu bat:

‘Hauts bihurtu zineten’.

Idazle bat:

Juan Kruz Igerabide.

Irakurtzeko momenturik egokiena:

Ilunabarra.

Eta idazteko momenturik egokiena:

Eguneko edozein une izan daiteke egokia, baldin eta lasai bazaude eta leku egokian eta, horrela izan ezean, afal ondorenean neure gelan.

Zaletasun bat:

Lagunekin irtetea, idaztea, bidaiatzea..

Oporretarako leku bat:

Itsasertza.

Kirol bat:

Ez zait gehiegi gustatzen kirola egitea, baina bat aukeratzeko, futbola.

Janari bat:

Txokolatea.

boraren joanean koardeno-
txo batean jasotzen dituzun
ohar, poema edo hitz-lauz-
ko zatitxo horiek pixkana-
ka-pixkanaka gorpuzten jo-
aten dira eta bidezidor hor-
retan murgilduz gero zail
izaten da guztiz bukatu arte
atseden hartzea.

**Bi sari hauez gain Urru-
zuno literatur lehiaketa
ere irabazi zenuen, ezta?**

Bai. 2006. urtean Urruzuno
literatur lehiaketako irabaz-
leetako bat izan nintzen, or-
duan ere poema batengatik
eman zidaten saria eta Bea-

saingo Literatur Lehiaketan
ere sari gehiago irabazia
naiz eta Loinazpen antola-

tzen ziren literatur lehiake-
tetan ere hainbat sari lortu
nituen.

**Irakurtzeko zaletasuna izatea da kontua
eta zerbait irakurri ondoren edo abestiren
bat entzun ondoren horrek gogoeta egitera
bultzatzen nau eta une horretan sentitzen
ari naizena orritxo batean idaztera.**

Paperean ala ordenado- rean idazten duzu?

Nahiago dut hasiera batean
paperean idatzi, baina egia
da, behin zirriborroak egin-
da dituzunean ordenagai-
luak izugarritzko abantailak
eskaintzen dizkizula esal-
diak goitik behera aldatze-
ko edota une horretantxe
bururatu zaizun zerbait tar-
tekatzeko.

Idatzitako ipuin asko puskatu al dituzu?

Bai. Lan asko puskatu be-
har dira lan txukun bat ida-
tzi aurretik.



● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

nazaretzentroa

N4

JARDUNALDI IREKIAK

DATAK **Apirilak 18-19**

ORDUTEGIA 18:00 Ostirala

 11:00 Larunbata

Batxilergoa

- Giza eta Gizarte Zientziak
- Natura eta Osasun Zientziak

Masterrak

- Aplikazio Informatikoen Garapenean Masterra

Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak	Ziklo Ertainak
■ Administrazioa eta Finantzak	■ Administrazio-Kudeaketa
■ Informatika Sistemen Administrazioa	■ Merkataritza
■ Informatika Aplikazioen Garapena	■ Sistema Informatikoen Ustiapena
■ Merkataritza Kudeaketa eta Marketina	
■ Nazioarteko Merkataritza	
■ Idazkaritza	

Aldakonea, 36 · B° Egia
20012 DONOSTIA
Tel. 943 326666
Fax. 943 326384
nazaret@nazaretzentroa.com
www.nazaretzentroa.com

*Ikasgaiak euskaraz, gaztelaraz
eta ingeleraz ematen dira*

kutxa | Lankidetzako Gizarte Ekintza

GOIERRI

kopiak

KOPISTERI ETA PAPER DENDA

BERRIA

EZAGUTZERA GONBIDATZEN ZAITUGU

FOTOKOPIAK KOLORETAN

PLANOEN KOPIAK

KOADERNAKETAK

INPRIMAKETA DIGITALA

PAPER-DENDA

INFORMATIKA KONTSUMIGARRIAK

email bidezko zerbitzua

goierrikopiak@gmail.com

Tel. 943 02 73 44

Faxa. 943 02 73 71

Garmendia Otaola 2, 20200 BEASAIN


Lazkao Txiki hil zela 15 urte

Egitaraua

Apirilak 4, ostirala: Bertso afaria, Lazkaomendiko Lartxai elkartean, 21:00etan. Bertsolariak: Aitor Sarriegi eta Aitor Mendiluze.

Apirilak 6, igandea: 'Lazkao Txiki gogoan' ekitaldia, bertsoak, musika, dantza, salda... 12:30ean, Lazkao Txiki Zelaian. Musika eskolako ikasleak eta Oin Arin dantza taldekoek elkarrekin prestatutako emanaldia, Lazkaoko bertso eskolako ikasleen bertsoak eta Ekaitz Goikoetxea bertsolariaren eta Igor Barreros pianojolearen emanaldia.

Apirilak 25, ostirala: Gazteentzat bertso-saioa Goierriko bertso eskolako ikaslea, Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi. 14:30ean San Benito ikastolan. Egun berean XVIII. Antzarren berto paper liburuxkaren banaketa.



Apirilaren 3an 15 urte bete dira Lazkao Txiki hil zela. Urtero bezala, ondoko koadroan ageri den omenaldia egingo dio Goierriko Euskal Eskola kultur elkarteak, Lazkaon. Urteurrena aitzaki hartuta, hemen duzue 1992ko urrian, GOIERRITARRAREN 27. zenbakian, argitaratutako elkarrizketa; beste bi bertsolarik, Iñaki Muruak eta Xabier Narbartek, sinatutakoa hain zuzen ere.

Goierritarran, 1992ko urrian argitaratutako elkarrizketa

Oporretarako astirik gabe bertsotan

Lazkao-Txiki:

“Ez dut egundaino bertsolaria naizenik esan, bertsotan ari naizela baizik”

Lazkaomendiko “Abelene” baserrian jaio zen euskaldun fin bezain abertzale sutsua den bertsolari hau izan du Goierri bailara osoak Euskal Herrian sekula izan duen enbajadorerik hobereena. Nork ez dio berari uste-kabeko ateraldirik entzun edo nori ez dio parre algararik egin arazi?

Bere txikitasuna onartzeko, handi izateak ematen dion konfidantzaz, honako hau bota du: “Ceutan egin nuen soldadutza eta 9 hila-bete pasa ondoren etxerako permisoa izan nuen lehenengo aldiz. Ni ez naiz ezer asko, baino “cabo” izatera

iritsi nintzen, (pentsa zer behar duen gradu hau hartzeko) eta etxean arropak utzi nituenean, hala esan zidan amak: “Zer dituk sorbaldetako zinta hauek?”. “Ni, aurrean, puntan ibiltzen naizen hoietakoa naiz ama”, erantzun Joxe Mielek. Eta amak, “Bai, hi galoiegatik ez, hi ikusiko bahaute aurrean jarri beharko haute”. **Nolakoa da Lazkao Txiki? Nola ikusten duzu zure burua?**

Ispiluan... Norberak ez du sekula jakiten hori, zuek ez al duzue entzun Pedromari Otañooren bertso hura?: “Nahiz jaio izan herri txi-

kian / nahiz jaio mendiko bordan, / munduko gizon azkarrena, / dakiena bera nor dan”. Ingurukoek esan beharko dizute hori.

Zeri diozu beldurra?

Klase asko dira, zigorraren beldurra, norekin hutsegingo duzun, bizimodua nola aterako edo eramango ote duzun... Nik beti izan diet gauza hoiei beldurra, oso etsikoia naiz beti, gauzak nola gertatuko zaizkidanaren beldur. Beste beldur bat berriz, orain hemendik aurrera izango dudana.

Bizitzan egin duzun eta egin gabeko zeren damua duzu?

Gauza on gehiago egin eza da damu dudana. Egindako zenbait juerga eta astakeriak ere ez nituzke egingo; lagun batek dioen bezala, bizitza erdia osasuna galtzen pasa dugu eta orain bilatu ezinik. Horrela ikusten da orain begiratuta. Baina orduan ez, orduan gustora ibili nintzen, hura izan ez

balitz ez nintzan hainbeste ibiliko. Oso zama astuna da bertsolariak daramana: ingurukoek hurrengo eguna jai eta guk ez.

Inoiz izan al duzu zantzarik jendearen aurrean: “Hauek nirekin parrez, ala neri parrez ari dituk”.

Ez, ez dut horrelako irudipenik izan, seguru ibili naiz horretan. Bertsolari bati behin lagunek esan omen zioten ez ibiltzeko horrela, jende guztia parrez ari zitzaiola eta hala esan omen zien: “Bai, hoiek denen artean parre egiten zidatek neri, baina nik bakarrik egiten ziet parre hoiek denei”. **Ez zara zurikeria zalea, umoretsu zaudenean bezala triste edo haserre zaudenean, beti zauden bezala azaldu zara.**

Bai, nik beti gauzak gorde gabe esango dizkiot edozeini, nahiz eta gero zital edo petralizat hartuko nauen. Hala ere, ez nioke bertsolari bati kontseju hori eman-

go, nik horrekin galdu gehiago egingo nuen eta bere esku egongo da hori, zer izakera duen hura egingo du.

Zer erakutsi dizu plaze-tan hainbeste urte ibiltze-ak?

Lagunartean edo jende artean hitzegiten eta moldatzen erakutsi dit, naturalago izaten, baina ez dit aurrez nituen kezak uxatzen erakutsi, lehen hainbeste pentsatu behar izaten dut zerbait egin aurretik edo ondoren.

Zeintzu dira bertsolari baten ezaugarriak?

Aurreneko ofizio handia eta gogoia, neri gastatzen ari zaidana. Lotsa ere neurrian izan behar du, ez ausartegia eta ez edozeinek esandakoa egitera jartzen dena, bista izan dezala.

Umorezko gaia ala senti-bera?

Sentibera nahiago dut, beti triste ezin ibili eta umoretsu azaldu naiz, baina bihotzean sentiberatasuna daukat nagusi.

Gai baten aurrean, zer aukeratuko zenuke: hiru baleko bertso ala bat markakoa eta bi erdipurdiko?

Bat gogoan hartzeko modukoa. Horrek arriskuan ibil-

tzea dakar eta nik saioen ondoren buelta asko ematen diot esandako eta esan gabe utzitakoari, orain gainera lehen baino gehiago.


Txikia izateak zer ondorio izan du zuretzat bertsotarako?

Bueno, besteez diotenari segi behar, baino esaten den bezala, negar ez egitea-gatik parre egin.

Zer da zuretzat jakinduria?

Behin batean Einstein zientzilaria trenean omen zihotan, eta interbentoreak biletea eskatzean, patrika guztiak arakatu arren, ez zuen bileterik aurkitzen; orduan interbentoreak esan zion: lasai, ezagutzen zaitut eta badakit beti biletearekin ibiltzen zarela. Handik denbora batera berriro interbentoreak ikusi Einstein nola ari zen lehengo biletea aurkitu nahirik eta uzteko esan, fidatzen zela berataz. Einsteinek honela erantzun: ez, ez da zuregatik, orain nik behar dut biletea, nora nindoan ez bait dakit.

Neretzat, ez da inor jakintsu titulua duelako bakarrik. Edonon ondo moldatzeko gai izatea da jakinduria. Nik ez dut sekula sinistu jakintsu naizenik eta ez



Fotoetxe

dut egundaino bertsolaria naizenik ere esan. Hori galdetzean, bertsotan aritzen naizela erantzun dut.

Bertso eskolei buruz, zer uste duzu?

Ondo daude, lagungarri dira zaletasuna dutenentzat. Gustatzen zait egiten duten lana, zaila izango da gainera.

Gaiak emanda ala librean?

Zailagoa da gairik gabe. Gaia jartzen dizutenean badakizu nola ibili behar duzun, eta ez baduzu gairik dena zuk aurkitu behar du-

zu, herritarrekin hitzeginaz edo ahal duzun bezala. Gehiago egin behar litzateke orain librean.

Lehengo bertsolaritzatik gaurkora zer alde ikusten duzu?


Doinu berriak, bertso luzeagoak... baino ildo beretik dihoa, gauza bera da.

Noiz arte bertsotan?

Ez dakit, askotan pentsatzen dut gehiago ez dudala kantatuko, lehen ere bai. Ez dakit noiz utziko dudan edo bertsoak neu utziko nauen.

Iñaki Murua
Xabier Nabarte

“0 so etsikoa izan naiz, gauzak nola gertatuko beldur”



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



Salmenta

Konponketa

Alokairua

Harilketa



T/F: 943 16 47 93 - M: 639 40 26 11



Goierri

Kultur zirkuitua

Elkarlanaren bidetik euskararen erabilera bultzatzeko asmoarekin, Topaguneak eta eskualdeko bost kultur elkarte (Goierriko Euskal Eskola, Beasaingo Arrano, Ordiziako Hitzaro eta Itsasondoko Arbelaitz), Goierriko Kultur Zerbitzua antolatu dute, apirilean.

Apirilak 3, kontzertua Lazkaon

Katamalo (Bihotz bakartien kluba). Kontzertua, gaueko 9etan izango da, Lazkaoko Maizpide euskaltegian.

Apirilak 9, hitzaldi-diaporama Beasainen

'Illimani (Boliviako izpiak eta hizkiak)'. Hitzaldi-diaporama, iluntzeko 7,30etan izango da, Beasaingo udaltxeko areto nagusian.

Apirilak 18, antzerkia Itsasondon

'Euskara sencilloaren manifestoa'. Antzezlan, gaueko 9,30etan izango da, Itsasondoko eskolako aterpean.

Apirilak 22, ikusentzunezkoa Ordizian

'Zeelanda Berria (naturaren hitzak)'. Ikusentzunezkoa, iluntzeko 7etan izango da, Ordiziako Barrena kultur etxean.

Lazkao

Liluratura

Liluratura, literatur tailerraren barruan, Jose Luis Ota mendiren 'Erlojuen mekanika' poesia liburuaz ariko dira, apirilaren 9an, Lazkoako Gerriko txokoan, arratsaldeko 6,30etan. Literatur tailerrera, liburua irakurrita joatea derrigorrezkoa da, idazlearekin berarekin, liburuaz solasalditxo egingo baita.

Ordizia

Udaberriko postreen ikastaroa

Apirilaren 10, 17 eta 24an udaberriko postreen ikastaroa izango da Ordizian. Tailerra, Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Hitzaro Euskara Elkarlanean antolatu dute eta Amaia Oar-Arteta irakasleak emango du.

Marrubi eta limoizko sorbetea, gurinezko trufa, tiramisua, kafe-krema, gurinezko pastak, browniak eta almendra-pralinezko bizkotxoak egiten ikasiko dute ikastaroan parte hartzen dutenek. Sei orduko ikastaroa izango da, bi orduko hiru saio, 19:00etatik 21:00etara, Lukusin plazako Gazte Lekuan. Hortik aurrera, ikasleek beraiek erabakiko dute ikastaroa luzatu nahi duten ala ez.

Apirilaren 3ra arte egin ahal izango da izen-ematea, Herritarren Arretarako Udal Bulegoan. Ikastaroak 15 euroko matrikula du. Ikastaroan 16 urtetik gorako lagunek har dezakete parte.

Postre ikastaroko osagaiak antolatzaileek jarriko dituzte. Ikasleek tupper-a edota egindako postreak etxera eramateko ontzia bakarrik eraman beharko dute.

Zaldibia

Arkaka Interpretazio Zentroa irekita

Aste Santuan Zaldibiako Arkako Interpretazio irekita egon da eta aurrera begira ere, maiatzetik urrira bitartean, larunbat eta jaiegun guztietan irekita egongo da. Ondorengoa izango du ordutegia: goizez, 11:00etatik 14:00etara; eta arratsalde, 16:00etatik 19:00etara. Arkaka Interpretazio Zentroan Amundarain erreka aitzakia-tzat harturik, Aralarko artzantza, kobazuloak, uraren zikloa eta beste hainbat gai lantzen dira, azkenik, giza-kiak urarengan egin duen erabilera, CAFen Arkaka zentral hidroelektrikoa eta uraren kontsumo arduratsua lantzeko.

Beasain

Astigarretako mus txapelketa

Apirilaren 12an, mus txapelketa antolatu dute Astigarretako Astauzel elkarteak. Arratsaldeko 5etan hasiko da joko eta ohiturari jarraituz, ondoren, afaria izango da.

Goierri

Osinalderen atarian, Aztiri, Argi-Berri eta Axari sariak

Gabiriako Osinalde sarian parte hartuko duten sei bertsolari aukeratzeko, hiru kanporaketa saio jokatu dira apirilean. Gabirian, Aztiri saria; Ordizian Argi-Berri saria; eta Idiazabalen Axari saria. 18 bertsolarien artean ez da goierritarrik izango aurtengoan. Bertso-afarien bueltan jokatu dira saioak, eta saio bakoitzean, seina bertsolari lehiatuko dira. Sariaketa bakoitzetik, bina bertsolarik lortuko dute Gabirian kantatzeko txartela. Apirilaren 26an jokatu da, finala, Osinalde saria.

Aztiri saria. Apirilak 5.

Gabiriako Aztiri auzoko Aztiri elkarteak, 20:30ean: Itsaso Paia (Getxo), Julio Soto (Gorriti), Beñat Iguaran (Bilabona), Karmele Mitxelena (Oizartun), Unai Gaztelumendi (Añorga) eta Manu Goigona (Irun).

Argi-Berri saria. Apirilak 12.

Ordiziako Argi-Berri elkarteak, 20:30ean: Oier Aizpurua (Zarautz), Alaia Martin (Oizartun), Aitor Urbietta (Zarautz), Maialen Velarde (Zumaia), Alazne Untxalo (Ituren) eta Jokin Sudupe (Azkoitia).

Axari saria. Apirilak 18.

Idiazabalgo Axari elkarteak, 20:30ean: Patxi Iriart (Hiriburu), Mizel Mateo (Bidarra), Uxue Alberdi (Elgoibar), Hodei Iruretagoiena (Zarautz), Izar Mendiguren (Laudio) eta Jone Uria (Getxo).

Goierri

Goienizen 'Begirada'

Ikasturteko azkeneko zikloa izango da 'Begirada' zikloa. Zinema italiarra izango da aurtengo gaia. "Horrelako filmak lortzeko aukera eskasak ahalik eta ondoen aprobetxatu nahian, garai eta egile desberdinen lanak aurkeztuko dizkizuegu. Guztiak ere, umore zirikatzailean nabarmentzeko moduko filmak izanik, zikloa zinezale guztion gustukoa izatea espero dugu", dio Goieniz zine klubak.

Ohi bezala, ostegunetan izango dira, Beasaingo Ururbe antzokian. Sarrerak, 3,50 euro balioko du. Jarraian duzue egitaraua:

Apirilak 3: 'Cronica de un amor'. Michelangelo Antonioni (1950).

Apirilak 10: 'Rocco y sus hermanos'. Luchino Visconti (1960).

Apirilak 17: '8 1/2'. Federico Fellini (1963).

Apirilak 24: 'El Decameron'. Pier Paolo Pasolini (1971).

Segura

XIII. Iparra-Hegoaren azken txanpa

Segurako Elorri Kultur Elkartek antolatuta, aste guztian zehar, Iparra-Hegoaren XIII. edizioan murgilduta dabil-tza Segura aldean. Jarraian duzue asteburuko egitaraua:

Apirilak 4, ostirala:

Segurako Herri eskolako haurrak eta gonbidatutako ikasleetako haurren arteko egun pasa. Baionako Hiriondo eta Oihana ikasleetako haurrak etorriko dira.

11:00etan: Harrera. Ondoren herri-itzulia Ardiarra bisitatu, irati saioa...

12:30etan: Herriko haurren eta gonbidatuen arteko bazkaria.

13:30etan: Xiba jokoak.

14:30etan: Txan magoa, ikastetxe bakoitzaren ikuskizuna, kantuak.

Ondoren: Txokolate jana eta buruhandiak.

Iluntzean: Kale animazioa: Dangeliske euskal fanfare taldea.

23:00etan: Kontzertua: Milshake (Idiazabalgo pop-rock lehiaketa irabazlea).

24:00etan: Zpeziz Mukaki taldeak animatuko du gaua.

Apirilak 5, larunbata:

Goizean: Mendi irteera, Euskal Herriko herri ezberdinetako mendizaleak herrikoekin batera; haurren jokoak eta tailerrak; margolari nobelen lehiaketa.

16:00etan: Elorri elkarteak, Euskal Herriko Mus txapelketaren finala.

16:30etan: Haur eta helduentzako Kulki, arrantzaleen jolas eta jokoen jaia.

17:00etan: Margo lanen sari banaketa Kultur Etxean.

18:00etan: Arraun norgehiagoka jokoa Ondarroako arraun elkartea lagun.

19:00etan: Taloak eta sardina erreak, Arabar Errioxako eta Nafarroako ardoen dastaketa. Kuxkuxtu txarangak alaitua. Txortains kale animazioa.

23:00etan: Inazki Lapurdiko taldearekin dantzaldia.

Apirilak 6, igandea:

Goizean: Kriseilu txistulari taldearen goiz eresia; herriko eta herrialde bakoitzeko produktuen azoka; sukalki edo gisatu prestaketaren lehiaketa; animazioak: Hazparneko joaldunak, Baigorriko gaiteroak, herriko gazteen korua, 'Donibane iratzarria' dantza ikuskizuna eta Donibane Lohizuneko Begiraleak taldearen eskutik.

13:00etan: Txakolin dastaketa.

14:00etan: Euskal Herriko herrialdeen arteko lotura sinbolizatzen duen Gereziendoko ekitaldia. Gonbidatu berezia: Beatriz Elizalde (arrantzalea, itsas ontzi patroia).

14:30etan: Herri bazkaria, Kuxkuxtu txarangak kantuz alaitua.

Ondoren: Sukaldaritza lehiaketako sari banaketa. Mutxiko dantzak aurtengo ekitaldiei bukaera emateko.

Apirilak 6: Erlezain eguna

Apirilak 3, osteguna:

14:30etan: Aitzuri Herri Eskolan, ezti dastatzea ikasleei zuzenduta, Gipuzkoako Erlezain Elkartearen eskutik.

19:00etan: Kultur Etxean, Zegamako intxaur-pasten aurkezpena eta dastatzea. Egilea: Zegama Okindegiko Kepa Galparsoro. Laguntzailea: Zegamako Udala.

Apirilak 5, larunbata:

23:00etan: 2008ko Urrezko aizkolarien txapelketako kanporaketa (E.T.B. Kaiku Sari Nagusia) Udal pilotalekuan.

Apirilak 6, igandea: Erlezain eguna:

10:00etan: Txistulariekin kalejira goizean zehar.

10:30etan: Jai hasiera: Euskal Herriko Gozogile onenen produktuen erakusketa.

11:00etan: Gipuzkoako X. ezti-lehiaketaren hasiera (milalorea erako eztiaren lehiaketa izango da eta bailarako txapelketetan sarituak aurkez daitezke bakarrik).

12:15etan: Durrumbaren hasiera Aseginolaza Anaian kaletik.

12:30etan: Durrumba amaiera eta ezti lehiaketaren amaiera. Ondoren, "erlakumearen bilketa".

13:00etan: Urteko erlezainak omenduko dira: Jose Zurutuza Iturrioz (Lezo), Santi Matxain Zubeldia (Lazkao), Jabier Ugarte Lizarralde (Oñati) eta Juan Iñurrategi Galarza (Legazpi). Jarraian, Ezti irabazleari sari banaketa.

13:15etan: Gozoki zein ezten dastatzea, dohainik.

14:15etan: Bazkari herrikoia herriko Ostatuan.

17:30etan: Tobera Musika Eskolako trikitilariak kalean zehar.

18:30etan: Zegamako Udal pilotalekuan, bertso jaialdia Kasino Elkarteak antolatu eta Zegamako Udal Kultura Batzordeak babestuta.

Egunean zehar:

* Argazki erakusketa: Aurreko urteetako Erlezain Eguneko argazki erakusketa, pilotaleku sarreran.

* Txoznak: Artisautza, produktu ekologiko, sendabelar, ezti, argizari, propoleo, kandela, etab. saltzen.



* Talogileak.

* Herritar zein elkarten postuak: Aizkorriko Lagunen Elkarte, Turismo Bulegoa eta Gipuzkoako Erlezain Elkartearen (GEE) informazio gunea.

* Erlearen munduan erabiltzen diren tresnen erakusketa: erlauntz, auspo, espatula, estraktore, mozorroa eta abar.

* Erakusketa mugikorra, erlazaintza eta ingurumena, panel informatibo batzuk kokatuko dira kalean.

* Erleak zuzenean: Jendearen jakinmina bete asmoz, kristalezko (PVC) kaja antzeko batzuk erabiliaz, erleek erlauntzaren barruan izaten duten bizitza ikusi ahal izango da.

* "Argizaria lantzen" erakusketa praktikoa.

* Euskal Herriko gozoki onenen doaneko dastaketa.

* Txokolate beroa bertaratuentzat.

Bertso saioa

18:30etan: Zegamako Udal pilotalekuan, bertso jaialdia Kasino Elkarteak antolatu eta Zegamako Udal Kultura Batzordeak babestuta. Bertsolariak: Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi, Jon Martin, Jexux Mari Irazu, Aitor Sarriegi, Unai Agirre eta Iker Zubeldia. Gai-jartzailea: Jon Zaldua

MUJIKA
LIBURUDENDA
Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Unanue
ume jantziak eta puerikultura
Nafarroa etorbidea, 4 - BEASAIN
Tel.: 943 88 71 94
unanue@unanuebeasain.com

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:
Gai eta maila guztiak

INFORMATIKA:
Mekanografia, Word...

INGELERA:
Haurrak, gazteak, helduak

IKASKETA TEKNIKAK, TAILERRAK

UNIBERTSITATE MAILA:
Enpresaritza, Injeniaritza

Joan Iturralde, 5, Beasain
943 160 120
www.ikaskide.net

ETXEBIZITZAK

salgai

Ataun. 80 m², 2 logela, igogailuarekin. Garajea eta trastelekua. www.lamylazkao.com

Ataun. Eraikuntza berria: 2 logelako pisua + garajea + trastelekua. 210.400+ BEZA. www.lamylazkao.com

Beasain. Etxebizitza salgai, Nafarroa etorbidearen ondoren. 75m², sukaldea, 3 logela, egongela, bainugela, 50m²-ko terraza, berogailua, altzariz hornitua, ganbara eta igogailua. Aukera ona, prezio interesgarria. 679933268.

Beasain. Etxebizitza salgai. 90 m². 3 logela, 2 komun. 636980339.

Beasain. Igartzta etxaldean 112 m²ko etxea salgai. 4 logela. 2 bainugela eta 14 m²ko terraza. Bi kotxerentzako garajea. 635746967.

Beasain. 4 logelako etxebizitzak salgai, oztopo arkitektonikorik gabe. Erdigunean. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Beasain. Duplex ederra salgai. Bista paregabeak. Eraikuntza berria. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Beasain. 80 m²ko etxebizitza salgai. Igogailuarekin. Prezio interesgarria. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Beasain. Eraikuntza berriko 2 logelako pisua salgai, erdigunean. Garajearekin. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Beasain. Hirigunean, eraberritutako 2 logelako atikoa. 180.000 euro. www.lamylazkao.com

Beasain. Nafarroa Etorbidea, 130 m²-ko atikoa, 2 logela. Ikusgarria. www.lamylazkao.com

Idiazabal. 3 logelako etxebizitza, 2 komun, trastelekuarekin eta garajearekin. Terrazaduna. Eguzkitsua. www.lamylazkao.com

Lazkao. Azken adosatua salgai San prudentzio auzoan, 140m². Giltza ematea maiatzan. www.lamylazkao.com

Lazkao. Hiribarren kalean, adosatua, 250 m². 400 m² lur saila. www.lamylazkao.com

Lazkao. Elosegi kalean, ia berria. 86 m², 3 logela, garajea aukeran. www.lamylazkao.com

Lazkao. San Jose eta San Inazio auzoan, 60 eta 75 m²-ko etxebizitzak. www.lamylazkao.com

Lazkao. Elosegi kalean, 2 logela, eraberritua, bizitzen jartzeko prest. www.lamylazkao.com

Lazkao. Eraikuntza berria. 1, 2, 3 eta 4 logelakoak. Oro-bionen eta San Prudentzio auzoan. www.lamylazkao.com

Ordizia. Aita Urdaneta kalean, 3 logela, guztiz berritua, oso argitsua.

Ordizia. Etxea salgai. Prezio interesgarria. 688665147.

Zaldibia. Etxea salgai. 80 m²tik gora. Ganbara eta igogailua. 676158332.

Goierritarako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,65 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritaran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

LANA

eskaerak

Egunerorako zebitzari euskalduna behar da. Espereintziaduna. Kontratuarekin. 615745924.

Olaberrian, emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. 667412658.

Administratzaile laguntzailea behar da Legazpi, Zumarraga eta Urretxu inguruan. 685755799.

Ordiziako Altamira jatetxerako zerbitzaria behar da. Urtean 18.000 euroko soldata. Ordutegi ona. 688632201.

Enkargatua behar da ilea-paindegirako. 616648255.

Zerbitzaria behar da taberna baterako. 943801799.

Zaldibian, denda baterako pertsona bat behar da. Deitu 8:00etatik 14:00etara. 943885500.

eskaintzak

Mutila, asteburuetan pub batean lan egiteko prest. 625701599.

Neska arduratsua etxeko lanetan, umeak zaintzen edo zerbitzari bezala lan egingo luke. 675555811 - 943085011.

Emakume arduratsua garbitzen, edo adinekoak zaintzen lan egingo luke. 663083069 - 943085011.

IBILGAILUAK

salgai

Citroen C4 autoa salgai.

Urte eta erdi. 11000 km. Egoera ezin hobean. 677329934.

Ford Fiesta salgai. Kilometro gutxiarekin. 652756806.

HARREMANAK

40 urteko mutil jatorrak eta langileak, neska bat ezagutu nahi luke. 638897296.

BESTELAKOAK

salgai

Roller karabana salgai. 5 plaza. 645712618.

Haurrentzako gurpildun aulki bikoitza salgai (eserleku bat bestearen atzean). 7 hilabetez erabilia. 652778334.

Logela txuria salgai. Osoa. Egoera onean. Berria. Kapritxosoa. 665717162.

kontsultak

Tarot kontsultak. 943766214.

LOKALAK

salgai

errentan eman

Lazkao lokala alokatzen da. 943225674 - 635710103.

Zaldibian 75 m²ko lokala salgai. Etxebizitza egiteko baimenarekin. Autokarabana edo garajeetarako. 669883623. Gaez deitu.



RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901

Senpere Industrialdea LAZKAO



LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g

☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea

☎ 943 88 60 70

BEASAIN



Itsasoko Izagiritxiki baserriko sendia 1910. urte inguruan

Argazkian Oria Usabiaga sendia ageri da, aitona-amonak, gurasoak eta 6 seme-alaba. Gaur egun Izagiritxiki baserria hondaturik dago.

Atzeko ilaran: Antonia Oria, (Ormaiztegiko Lezeta baserrira ezkondua), Joxepa Oria (Itsasoko Itzebekoa baserrira ezkondua, Inazia Oria (Itsasoko Albitxugoikoa baserrira ezkondua) eta Domingo Oria Mendizabal (aita).

Aurreko ilaran: Domingo Oria (Ordiziara ezkondua), Maria Joxepa Mendizabal Gabilondo (amona), Inazio Antonio Oria Osinalde (Aitona), Joxe Mari Oria (Itsasoko Eztalagoikoa baserrira ezkondua), Luzia Usabiaga (ama) eta Jorge Oria (Uruguain ezkondua).

**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK**

☎ 943 02 73 58 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

Olagi

*Sagardotegia
Jatetxea*

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

Urte guztian
zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua

ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

IÑAKI ARIN
aseguruak

943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN

San Benito ikastola

KALITATEZKO HEZKUNTZA INTEGRALA

*Zure seme-alabaren hezkuntzan
parte hartu nahi dugu*

- Gertuko jarraipena
- Irakasle talde finkoa
- Giro euskalduna
- Teknologia berrien bultzatzailea

Izen-emate epea:
Martxoaren 31tik
Apirilaren 11ra

- Eleanitza
- Garaso eskola
- Garraioa
- Jargela



BATXILERGOA BERTAN

www.sanbenitoikastola.net

Tel. 943880800 Emaila: lazkao@ikastola.net LAZKAO



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Goierri Lanbide Eskola
La granja auzoa, z/g
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 880 062
Faxa: 943 888 351
www.goierrieskola.org
bulegoa@goierrieskola.org

Goierri Lanbide Eskola

2008-2009 eskaintza

Zurekin Etorkizuna landuz

BATXILERGOA

Batxilergo Zientifiko - Teknologikoa
Unibertsitatera eta goi mailako zikloetara zuzendurik



Ate irekien eguna: Apirilak 10 arratsaldeko 17:30etan.

